



AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA - ETXANO

BIDE PUBLIKOAN ANIMALIAK BATZEKO ZERBITZUAREN TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. ARTIKULUA

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz, Amorebieta-Etxanon animaliak batzeko zerbitzua emategatiko tasa ezartzen eta ordainarazten du. Zerga Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, aipatu Foru Arauko 21-28 artikuluetan ezarritakoa betez.

2. ARTIKULUA

Ordenantza udalerrri osoan egongo da indarrean.

ZERGA EGITATEA

3. ARTIKULUA

Tasaren zerga egitatea ondokoa da: etxeko animaliak batzea ordenantza honen 7. artikuluko tarifetan zehaztu bezala.

SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Honako hauek izango dira zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsonak fisikoak zein juridikoak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek 34. artikuluan aipatzen dituen entitateak, ordenantza honetako zerbitzuak eskatu, emanarazi edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

ARDURADUNAK

5. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributu Foru Arau Orokorrek 40. art.an eta ondorengoetan ezarritakoa jarraituko da tributu erantzukizunari dagokionez.

ZERGA-ONURAK

6. ARTIKULUA

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

TRIBUTU KUOTA

7. ARTIKULUA

Zerga-kuota Eranskinean adierazitako tarifak aplikatuz zehaztuko da.

SORTZAPENA ETA ZERGA-ALDIA

8. ARTIKULUA

Zerbitzu-emate hasten denean, bai onuradunak eskatuta edota zeharka eragin duelako, tasa eta ordaintzeko beharra sortzen dira.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

Animalia batze-zentrotik atera baino lehen animalia jabe edo titularrak dagokion tasa ordaindu beharko du Udaletxeko bulegoetan.

Zerbitzua zuzenean eskatzen den kasuetan, tasaren zenbatekoa aldez aurretik eska daiteke.

ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA

Zerga arau-hausteak kalifikatu eta dagozkion zehapenak jartzeari dagokionez, Tributu Foru Arau Orokorrek xedatutakoa jarraituko da.

I) BIDE PUBLIKOAN ANIMALIAK BATZEKO ZERBITZUAREN TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

ERANSKINA - TARIFAK

KONTZEPTUA	EURO (€)
A) Bide publikoan utzitako animaliak batzea.	55,00
B) Hildako animaliak batu, eraman eta erraustea (txakurrak, katuak eta antzekoak).Animalia bakoitza.	47,30
C) Batze-zentroan egiten den eguneko:	
- 65 Kg edo gutxiago.	7,95 €/eguneko
- 65 Kg. baino gehiago.	17,10 € eguneko
D) Baten bati haginka egiteagatik animalia berrogeialdian izan eta batze-zentroan egotea.	147,60
E) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izan eta eramateko lizentzia (ematea eta berriztatzea).	15,00

INDARRALDIA ETA ONARPENA

Ordenantza hau bere Eranskina barne 2006ko irailaren 27an egin zen Ohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko azaroaren 21ean. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. (BAO. 239.ZK.2006, abenduak 18. Astelehena)